

Aztertutako puntuak

1. **Batzarraren aurkezpena eta ongietorria** Concha Castells Elkarteko presidentearen eskutik.

27 lagun bertaratu dira. Bertaratzearen balorazioa egin da, eta aurrez aurreko lurraldeetako bilerak ere aipatu dira.

Saioa grabatzea onartu da, geroago hobeto transkribatu ahal izateko.

- 2.- **2022ko Ohiko Batzarraren akta onartzea.** Cristinaren sarrera. 2024. urtean garatzen jarraitu beharreko zenbait alderdi aipatu dira.

- 3.- **2022ko urteko memoria eta balantze ekonomikoa.** Carlos Burónek diruzaintzari dagozkion puntu garrantzitsuenen azalpena egin du, deialdian bidalitako dokumentazioan jasota dagoela gehituz. CaixaBanken titularitate federala duen Kutxa Bakar Solidarioa zer den azaldu du. Hala ere Euskadiko Kutxan hondar-kontu bat mantentzen da Euskadin, bazkide batzuek urteko kuota hor ordaintzen baitute. Noiz edo noiz azken kontu hori ixteko asmoa aipatu da, baina kostua handia ez denez, mantentzea erabaki da, pertsona batzuen ordainketa errazten duen neurrian.

Kontu bakarraren abantailak azaldu ditu, batez ere Elkartearen lana aurrera eramateko lokalik eta langilerik ez dugun taldeentzat,

Gastu federalak (webgunea, posta, aldizkariak, komunikabideak, bazkideekiko komunikazioak, aholkularitza juridikoa Elkartearen gai orokorretan, langileen kostuak, nazioarteko harremanak, prestakuntza, topaketak, jardunaldiak...) talde edo lurralde bakoitzean elkartutako pertsonen proportzioan banatzen dira.

Batez besteko kuota 57 eurokoa da; gutxienekoa, 50ekoa.

Hitzaldi bat, tailer bat, topaketa bat... eskatzen zaigunean kobratzea edo ez kobratzearen inguruan aritu da. Elkarte gisa deitzen zaigun lekura joaten gara, dohaintzak emango dizkiguten edo ez kontuan hartu gabe. Kobratzea, oro har, deia egiten digun elkarte edo erakunde motaren arabera izaten da, ohiko jarduerarako duten diruaren arabera edo gero justifikatu behar dituzten diru-laguntzak jasotzen dituzten ala ez kontuan hartuta.

Faktura egin behar izanez gero, DMD Federalera igortzen da eskaera, IFZ eta beharrezko datuak zehaztuta, jarduera ekonomikoa eta interes publikokoa duen elkarte gisa alta emanda baitago. Euskadin ez gaude alta emanda, horrek dakarren kudeaketa-lan guztiagatik.

Argitu da desberdina dela Euskadiko Elkarteen Erregistroan alta emanda egotea eta jarduera ekonomikoa duen elkarte gisa alta emanda egotea.

Dohaintzak diren kasuetan, federalak egiaztagiri bat igortzen dio dagokion erakundeari. Modu horrek ez dio desgrabatzeko aukerarik ematen ordaintzen duenari.

Jarduera antolatzen eragindako gastuak ordaintzen zaizkie DMD-DHEko pertsoneri egindako gastuengatik, material espezifikoengatik edo autoz,

autobidez edo autobusez egindako joan-etorriengatik (dagozkien tiketak edo fakturak aurkeztuta).

2023ko azaroaren 22an, diruzaintzako bilera bat egitekoa da autonomia-erkidegoetako eta lurraldeetako DMD talde guztien ordezkariekin.

Memoriari dagokionez, jarduera eta ikuspegia positiboki baloratzen dira. Erabaki da 16. orrialdeko lehen paragrafoa zuzentzea, ez baita zehatza, eta *minusbaliotasun* terminoaren ordez *aniztasun funtzional* jartzea. Halaber, argitu zen bilera ez zuela inongo elkartek deitu, DMD-DHEko kide batek baizik.

4.1.- Eutanasia Arautzeko Lege Organikoaren (LORE) aplikazioaren bigarren urteko balantzea.

4.2.- DMD-DHEren erronkak, bizitzaren eskuragarritasunaren bidean.

Bi puntuak Concha Castellsek eta Julenek aurkeztu dituzte. Argitu da LOREn balorazioa Elkartearen Estatutuetan jasotako helburuen arabera egiten dela, legea aurrerapauso bat dela onartuta, baina nahikoa ez dela argi edukita.

Oraindik urrun gaude gure bizitzaren eta heriotzaren gaineko erabateko autonomia lortzearen helburutik.

Osasun Ministerioak estatu mailan egindako 2021. urteko txostenean aurkeztutako datuak eta Euskadin 2022.eko datuekin argitaratutakoak aztertu dira, Euskadiko CGEko presidentek komunikabideetan azaldutako ahozko txostenarekin batera.

DMD-DHE Euskadiren agiria aipatu da, Concha, Elena eta Marta bazkideek egindakoa eta Zuzendaritza-Batzordearen bileran onartua. Osasun Sailari eta Euskadiko Berme eta Ebaluazio Batzordeari bidali zitzaion, baita bazkide guztiei ere. Bertan gure balorazioa azaldu eta hobetzeko proposamenak egin ziren, besteak beste, legea herritar guztiek erazagutu dezaten web-orritik harago, prestakuntza zabalago eman diezaioten profesional soziosanitarioari, prestakuntza eta protokoloak artikulatuz osasun-zentro guztietan, horrekin guztiarekin ziurtatu ahal izateko gaiaren inguruko informazioa eskatzen duen edo eskaera bat hasten duen edozein pertsona hartua eta bideratua izan dadin.

Salatu da oso altua dela prozedura amaitu gabe eta eskaeraren aldeko edo kontrako txostenik jaso gabe hiltzen diren pertsonen indizea. Elkartera iritsi diren hainbat kasutan legeak ezarritako epeak gainditu dira.

Ezezko erantzuna jaso duten kasu batzuetan jarraitutako prozesua baloratu da, eta, kasu batean, eutanasia atzeratu ahal izatea (prozesua berriro hasi beharrik gabe) errespetatu zedin txosten juridiko bat aurkezteko beharra ere.

Beste kasu batzuetan, jasandako sufrimendua luzatu egin zela baloratu da, gero berehalako heriotzaren aurrean sedazio aringarri terminalaren aldeko hautua eginez (halakoetan protokoloa desberdina eta azkarragoa baita, medikuen ahalmena den neurrian, beti alde aurreko baimena momentuan edo ABDren bidez emanda).

Aurretiazko Borondateen Agiriaz ere hitz egiten da, eta, ehuneko handiena dugun erkidegoetako bat izan arren, berretsi da eskubide horren zabalkundea eta dauden baliabideak ez direla nahikoak, horrek 3 edo 4 hilabeteko epeak sortzen baititu ohiko hitzordu bat lortzeko.

Zein elkarte mota garen eta izan nahi dugun eztabaidatu da ondoren.

- a) LOREren kudeatzaileak, aplikazioa eta garapena ebaluatzen
- b) LOREz haraindiko bizitzaren eskuragarritasunaren aldarrikapena, zeren eta, LORE baldintza batzuk betetzea eskatzen duen legea izanda, kasu guztiak baldintza horietan sartzen ez baitira. Gainera, ukapenek erakusten duten bezala, pertsona batzuek berme askotako prozedurari ekin eta gero hil egiten dira, egoera pertsonala eta eskaera tramitzeko denborak haien aurka jokatzeko dutelako.
- c) Aurreko biak konbinatzea

Instituzioen aurrean eta Komunikabideetan jokatzeko dugun salaketa-rola eztabaidatu da, eta eutanasia ukatu zaien pertsonen egoera galdegaia izan da.

“Bizitzaren amaierako osasun-eskubideak” 2016ko Legearen ebaluazioa aldarrikatu da, baita Heriotza Duinaren Behatokia sortzea. Ildo horretan, gai horrekin jardunaldiak antolatzeke aukera aztertuko da, dagoeneko onartuta duten eta garatzeko lanean ari diren erkidegoen Iruñeko Topaketari jarraipena egin eta gero.

Arreta Pertsonalizatuaren jarduera egiten jarraitu behar da, kontsultak baloratu ahal izateke eta bideak hobetzeko esperientzia metatzeko, baita Administrazioaren eta, oro har, herritarren aurrean egiten ditugun proposamenak bermatzeko dituzten datuak lortzeko ere.

Erreklamatzeko mekanismoek hitz egin da, PEAZ bidez (Pazientearen Arreta Zerbitzua, SAPU erdaraz) eta zuzenean Berme eta Ebaluazio Batzordearen helbide elektronikoaz (Osasun Sailaren webgunean dago eskuragarri) bideratu daitekeena.

Beharrezkotzat jo da Elkarteen eta Osasun Sailaren eta BEBren arteko lotura zehaztea.

Erronkak honela laburbil daitezke:

- Herritarrak ditugun helburuez sentsibilizatzea. Heriotza onaren, norberaren bizitzaren eskuragarritasunaren eta Aurretiazko Borondateen Dokumentuaren baliozkotasunaren erreferentzia izatea gure elkarteak.
- Aktibismo handiagoa, LOREren zaindari hutsak ez garen heinean, ezta erakundeen subsidiarioak ere.
- Arreta pertsonalizatua, helburu hauekin: LOREri buruzko informazioa zabaltzea eta erabilpena erraztea, aplikazioari buruzko informazio zehatza biltzea, txosten instituzionaletatik harago, eta heriotza duinean erreferente gisa finkatzea.
- Osasun Sailarekin eta Batzordearekin harreman ona izatea, ahal den neurrian.
- Osasun-eskubideak kaltetzen dituzten egoerak salatzea,
- Heriotza duinaren behatokia.

5.- Heriotza duinaren nazioarteko eguna. Efemeridea zela eta, prentsaurreko bat antolatu zen, eta hainbat komunikabidek hartu zuten parte: Tele Norte, Radio Nervi3n, Euskadi Irratia, Europa Press, Cadena Ser, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Nacional. Joan ez zirenei, prestatutako komunikatua birbidali zitzairen: Argia eta Berria.

Egun horren ostean hiru lurraldeetan eskatutako elkarrizketei erantzun zitzairen.

Komunikabideetan eta Osasun Sailean eta BEBn bertan izan duen eragina aztertu da. Antza denez, ez da haien gustukoa izan.

2022ko txostenaren argitalpenaren ondorioz bi erakundeei igorri zitzairen hobekuntza- eta salaketa-puntuak jaso eta azaltzen zituen jakinarazpena, eta 2023ko azaroan, berriz, proposamen horiek azpimarratzen jarraitu behar zela erabaki zen.

DMD-DHEk komunikatuan aurkeztutako datuak berraztertu eta komunikabideren batean azaldutakoekin alderatu dira, eta gerta daiteke hortik etortzea ezinegon instituzionala.

Behin eta berriz azpimarratzen da datuak testuinguruan jarri behar direla, eta erakundeekin harremanetan jarraitu behar dela, eta ahal den neurrian ahalik eta adeitsuen, baina horrek ez du esan nahi kritikarik egin behar ez dugunik, eta egungo legedian jasotako osasun-eskubideen aplikazioan hobekuntzak proposatu behar ez ditugunik.

Norberaren bizitza eta heriotza eskuragarri izateko eskubidean aurrera egitea, "BIZITZA BURUTUA" aukera garatuz. Eutanasia legeak 20 urtez indarrean dauden herrialdeetan aldarrikapen horri eusten diote.

Aipatzen da nazioarteko egunaren inguruko eztabaida plazaratu dutela federalean. Bada proposamen bat data hori urtarrilaren 12ra eramateko, Ramon San Pedroren heriotzaren egunera, alegia; egun hori Estatuan heriotza duinaren egun gisa aldarrikatzeko, eta azaroaren 2a Heriotza Duinaren Nazioarteko Egun gisa.

Ekarpenak egon dira azaroaren 2a Heriotza Duinaren Nazioarteko Egun gisa mantentzearen alde, eta urtarrilaren 12a Espainiako Estatuan eskubide horren funtsezko data gisa mantentzearen alde. Hala ere, ez da horri buruzko erabakirik hartu.

6.- Beste batzuk.

Zer gertatzen da zahar egoitzetan? Sakondu beharreko gaia da, osasun-eskubideak nola aplikatzen diren aztertuz, bai ABDA duten pertsonengan, baita halakorik ez dutenengan ere, heriotza duina bermatzeko, heriotza biologikoa zein soziala kontuan hartuta.

Zer gertatzen da hileta-errituekin, gure gorputzak abandonatzeko eskubidearekin, beilatokietan ingurumena errespetatzen duten zerbitzu minimoak erreklamatzeko behararekin?

Maila federaleko taldearen berri eman digute. Talde horretan sartu da Ana Aguirre, Bizkaiko bazkidea, prestakuntza pertsonalean eta Elkartearen zabalkundearen interesa duten bazkideentzako online ikastaro txiki bat antolatzeko.

Aztertzeko beste punturik ez dagoenez, amaitutzat eman da Batzarra

Idazkaria

Cristina Valverde Ibáñez